



afera 'gauza, gaia, arazoa'	"—Zer esaten zizun Mikelek Amaiaren aferez ? —hasi da Esteban, gaiari zeharka oratu nahian."	(134)
ahala 'den neurrian'	"Haserre dago Ane, minduta, deseroso. Estebani kontatu ahala , burura datorkio berriz ere hilabete haietan nolako egoera bizi izan zuen..."	(107)
ahalean 'ahal izanez gero / arin-arin'	"Hori da Estebanen lana, nor bere buruan eginik duen irudian arrakalak bilatzea eta, ahalean , arrakalak ixtea."	(89)
ahalik eta ...-en 'albait ...-en'	"—Esadazu nola kontatu zizun hura, ahalik eta zehatzen , garrantzitsua da-eta."	(26)
ahalke 'lotsaz, herabeti'	"...eta beste aldetik, bere zintzotasuna jasateko ahalke sentitzen nintzen erabat: bere bihotz-zabaltasunaren aurrean ezin nuen ezer egin."	(57)
ahiturik 'neka-neka eginda, pot eginda'	" Ahiturik nengoen deusetan pentsatzearen pentsatzeaz."	(33)
aiduru 'itxaroten, zain'	"Estebanek ez zuen programaturik, esaterako, Anerekiko saioaldia noiz helduko zen aiduru egongo zenik, Anegatik baino, hutsik egin gabe..."	(43)
alboan 'aldamenean, ondoan'	"...nahiago lukeela alboan , azpian, gainean, edonon, metxa eta desira isiotuko lizkioken pertsona sentitzea..."	(160)
alde 'desberdintasuna'	"—Ez, jakina. Baina aldea , batez ere, norberaren buruan dago, nor bere buruan zer pelikula muntatzen duen, hortxe dago koska."	(91)
aldian behin 'noizik behin, noizean behin'	"...galdetzen dio aldian behin Marianek, noizbait izan zen suaren garra nola edo hala irunarazi nahian, iraungi ez dadin."	(68)
amultsuki 'maitasunez'	"Egonean egon, zerbait irakurri eta larrutan egin, zoro, pasioaz, tropikoaren izerdiari maitasunaren izerdia gehituz, amultsuki , izarak blai utzi arte."	(74)
anker 'krudela'	"Etsipena sentitzen zuen, ondoeza, bere bizitza zakarrontzira botatzen ari zelako sentsazio ankerra ."	(76)
antsiatsu 'irrikaz, gogo handiz'	"Mikelen etxera heldu ziren eta atea itxi aurretik bata bestearen besoetan zeuden, nor bere maitearen larruaren bila, antsiatsu ."	(18)
apika 'agian, beharbada'	"Beste egun batzuetan Jon gogor mintzatzen zitzaion, pazientzia galdurik edo egoera horretatik atera nahian, apika ."	(15)
araketa 'ikerketa, miaketa, bilaketa'	"Konponbidea ikusten dio gaixoari, baina hasieran baino ez daude, lehen fasean, arazoa sortu duen hurbileko zergatien araketan ."	(33)
arbuio 'gaitzespena'	"...ezagutzen ez dugunak ez du arbuiorik eragiten, baizik eta iraganean bizi izandako zerbait ekartzea..."	(118)
arrakala 'pitzadura, irekidura'	"Hori da Estebanen lana, nor bere buruan eginik duen irudian arrakalak bilatzea eta, ahalean, arrakalak ixtea."	(89)
artean 'orduan, oraindik (leh.)'	" Artean ez nekien, baina orain badakit maitasun hartan ez zegoela pasiorik."	(41)
artez 'zuzen'	"Esteban artez sartu da gaian."	(62)
asaskatu 'barnekoa libratu (desahogar)'	"Hiru hilabeteren buruan munduan zuen lagun onenarengana joan zen, borborka zuen barnea asaskatzera , bera baitzen Mikelen berri zuen bakarra."	(20)
aseptiko 'garbi-garbia'	"Mikel ez zen aukera bat, zen harreman aseptiko bat, hartu eta uztekoa."	(13)
astebete barik 'astebete izan beharrean'	" Astebete barik , beste hamabi egun gehiago pasatu ziren azkenean, harik eta nikaraguar taldea berriz Managuara heldu zen arte."	(57)
atoan 'berehala'	"Maiteminduak nahi du dena eta atoan , baita ezinezkoa ere."	(10)
atundu 'antolatu, ordenan jarri'	"Anek nahikoa lan izan zuen lehen asteetan etxea atontzen ."	(36)
azago 'urrun, urrin'	"Denboran atzera ari da, azago , neurtzen ari balitz bezala aurreko eta ondorengoaren arteko marra nola sortu zitzaion..."	(9)
azare 'zoria, suertea'	" Azarea noraino da ekidinezina? Eta noraino da azare?"	(12)
bailitzaion 'balitzaio bezala'	"Zerbait gertatu zelako kontzientzia laster hartu zuen, izan ere, elkar ikusteari hiru egunez utzi eta beso bat falta bailitzaion sentitu zuen egunean."	(13)



bailuen 'balu bezala'	"Bigarren enkontru hartan bertan, ezertxo ere galdetu ez bailuen , galderak egiteari ekin zion naturaltasun osoz."	(12)
baliteke 'Iguale bai, izan liteke'	"— Baliteke . Ez nizuke ezetzik esango."	(99)
begitazio 'irudipena, asmazioa'	"Nire begitazioa izango da, ez nuke ezetzik esango, baina esan zuenean denak hil, bizi eta jarraitu behar duela, nitaz ari zela sumatu nuen."	(132)
bekaiztu 'sutan jarri, amorratu, haserretu'	" Bekaiztu egiten zen inork aipatzen zionean Maria gizon batekin hizketan ikusi zuela kalean..."	(51)
berrosatu 'berriz osatu'	"...senar eta alabak nolatan utzi zituen, hausturik duen subjektibitatea zelan berrosatu behar duen."	(89)
beta 'denbora tarte txikia, abagunea'	"Aneri ez zion ezer galdetu, ezta ezer erantzuteko betarik eman ere."	(76)
betiereko 'eterno'	"...eta magia pasatutakoan konturatzen gara betiereko maitasun hura segundo galdua izan dela eternitatean, izar baten distira espazioaren eskergan."	(158)
biharamun 'hurrengo eguna'	"Berriz sentitu desiraren garra gauean, eta zalantzaren arra biharamun goizean..."	(86)
birritan 'bi bider, bi aldiz'	"...eta desiraren harrian birritan baino gehiagotan estrapozu egitea."	(70)
blai 'busti-bustirik'	"Egonean egon, zerbait irakurri eta larrutan egin, zoro, pasioaz, tropikoaren izerdiari maitasunaren izerdia gehituz, amultsuki, izarak blai utzi arte."	(74)
boladaka 'noizean behin, aldian-aldian'	" Boladaka baino sarriago mintzatuko balira, beren arteko harremanaren diagnosiari noizbehinka ekingo baliote..."	(69)
borborka 'pil-pilean, irakiten'	"Hiru hilabeteren buruan munduan zuen lagun onenarengana joan zen, borborka zuen barnea asaskatzera, bera baitzen Mikelen berri zuen bakarra."	(20)
branka eman 'aurre egin'	"Une batean, ez nuen jakingo zehazten noiz, zeharo suntsiturik sentitu nintzen, batez ere branka eman behar izan genionean zirt ala zart egin beharreko	(29)
deusetan 'ezertan'	"Ahiturik nengoen deusetan pentsatzearen pentsatzeaz."	(33)
diost 'esaten dit'	"Berak beti diost gauza bera, galdetzen diodanean senarrarekin maitemindurik dagoen ala ez..."	(99)
distira 'argi izpia, argi printza'	"...eta magia pasatutakoan konturatzen gara betiereko maitasun hura segundo galdua izan dela eternitatean, izar baten distira espazioaren eskergan."	(158)
duintasun 'dignitatea'	"Oraingo lantoki berrian, ordea, duintasunez bizitzeko bezainbesteko soldata jasotzen zuen hilero..."	(105)
egonean egon 'ezer egin gabe, denbora-pasa'	" Egonean egon , zerbait irakurri eta larrutan egin, zoro, pasioaz, tropikoaren izerdiari maitasunaren izerdia gehituz, amultsuki, izarak blai utzi arte."	(74)
egunen gurgpilean 'egunen joan-etorrian,	"...maitasun guztiak elkarren hartzen dute. Egunen gurgpilean ez dago magiarik."	(115)
ei 'omen'	"Txakurrek eta beste animalia askok ere gauza bera egiten ei dute: beren eremua usainen bidez mugatu eta finkatzen dute."	(52)
ekidin 'saihestu, ebitatu'	"Karmelet sartu denean Esteban mahaitik altxatu, sofan jesartzeko eskatu dio eta bera ondoan jarri da, lagun gisa, jarrera profesionala ekidin nahian edo."	(22)
ekidinezin 'saihestezina, itzuri ezina'	"Azarea noraino da ekidinezina ? Eta noraino da azare?"	(12)
emankor 'oparoa'	"Ordubeteko saioak emankorrek suertatzen ari dira, Anek luze eta zabal ekiten diolako kontaktari..."	(33)
enoratu 'kontuan hartu ez, ignoratu'	"-Hemen nauzu, Karmelet, mugak enoratu nahi izan eta berriz etxean, baina hesia dagoen nik neuk jakin behar nuen."	(21)
erabakimen 'erabakitzea, erabakia hartzea'	" Erabakimena da, eta ez azarea, harreman afektiboaren amaierarako giltza."	(79)
eragozpen 'oztopoa, arazoa'	"Anek ez zuen ez baietzik ezta ezetzik ere esan, baina ez zuen eragozpenik jarri..."	(149)
erremín 'erredura bezalakoa'	"...barnean duena ukatzeak ez du bururik, sekretu horrek erremína ematen diolako, zabalik dagoen zaurian ozipina isurtzeak erremintzen duen bezala."	(85)



errieta 'bronka'	"...eta Mikel ere proiektu gehiagotan inplika zitekeen, etxean errietaryik entzun gabe."	(60)
errieta egin 'matraka egin, agiraka egin'	"...eta Karmelek artean —halakoa zen bera—, ez zion errietaryik egin ."	(20)
eskerga 'handitasuna, inmentsitatea'	"...eta magia pasatutakoan konturatzen gara betiereko maitasun hura segundo galdua izan dela eternitatean, izar baten distira espazioaren eskergan ."	(158)
estrapozu egin 'tupust egin'	"...eta desiraren harrian birritan baino gehiagotan estrapozu egitea ."	(70)
estreinako 'lehenengo'	"Nik esango dizut zer den: estreinako presioa bularrean, eztarria ihartuta eta bihotza taupaka sentitzea..."	(9)
etsiezin 'aguantaezina'	"Karmelerekin oheratzeko gogo etsiezina sentitzen du Estebanek, nekez kontrola dezakeen gogo..."	(130)
ez-sasoian 'desgaraian, denboraz kanpo'	"Ai, laztana, orain ikasi duzu zer den maitasuna: dohaina da, dena polita eta larrosa, baina ezbeharrak ere izan daiteke, desgrazia bat. Ez-sasoian ikasi duzu	(20)
ezen 'bada (lotura hitza)'	"Esango zien ezen arrazionalki erabaki ez bazuen ere, Anek arrazoiak zituela..."	(89)
faliko 'zakilarekikoa, arren sexu'	"Zigarroa magikoa izan daiteke une batzuetan, totem sakratua, sinbolo falikoa , indar-biltzailea, jolaskide katartikoa."	(81)
fiktizio 'fikziozkoa, gezurrezkoa'	"Isilunean batailaren aurreko bakealdi fiktizioak izaten ziren."	(37)
gabetsi 'hutsetsi, falta sentitu'	"Hartan esaten zidan gabetsi egiten ninduela eta berarekin bueltatzeko, mesedez..."	(157)
gailendu 'nagusitu, garaile irten'	"Amaia sarritan gailentzen zen erabakietan, egia da..."	(148)
gar 'sentimendu bizia, sutsua'	"Baina buruaz egiten zituen arrazonamendu hauek ez ziren aski bere bihotzak isurtzen zuen garra apaltzeko, eta behin Jesbelin hura ezagutu nahi zuela aipatu	(52)
gogoramen 'oroitzapena, gomuta, oroipena'	"...esperientzia traumatikoa gehiago bilatu behar da gogoramenetan egiazko gertakizunetan baino."	(34)
goibeldu 'tristetu, hunkitu'	"...ezbeharrak egunero ikusi beharra eta berau tratatzeko baliabide-falta ikaragarria baitzegoen, edonor goibeltzeko modukoa;..."	(48)
gorpuzkera 'itxura fisikoa'	"...baina biek zuten altuera eta gorpuzkera bera, meharra, eta biak ia berdin jantzen ziren ia beti..."	(63)
halakoak 'alaenak (indargarria)'	"Min gehien ematen dien gizon-mota aukeratzen duten emakumeak dira, fatalitateak jotako panpina grekoak halakoak ; gizon-mota berezi batek	(58)
harrezkero 'geroztik, ordutik aurrera'	"Kanpotik inork ezertxo ere nabaritu ezin zuen arren, ezer ez zuen berdin harrezkero ."	(19)
harri eta lur 'harriturik, sor eta lor'	" Harri eta lur geratu da Ane hasieran, Estebani begira. Gero zorura begiratu du."	(80)
herabeti 'lotsatia'	"...gorputz baten liraina, eskuaren epeltasuna, irribarre baten keinu herabetia ... zerbaitek osatzen du une batean norberaren puzzlean bete gabe dagoen	(44)
herdoildu 'ugertu, oxidatu'	"Gezur baten gainean zuen eraikita harremana, eta gezurrak bizi laburrekoak izaten dira. Herdoilduz doaz egunerokotasunaz"	(19)
hisiaka 'temati, egoskor'	"Setati, hisiaka erabaki nuen erabakirik ez hartzea, noraezean aritzea, jarraitzea."	(33)
huskeria 'txikikeria, xehetasuna'	"Istorko horretaz kontu diezaiokkeen guztia jakin nahi du, xehetasun guztiak azken huskeriaraino ."	(65)
iharturik 'lehor-lehor, siku-siku'	"Harreman hura iharturik bazegoen berriz pizterik ez zegoela uste izango duzu agian..."	(78)
indigente 'babesgabea, pobrea'	"Begiatarra begiratzen dion bitartean esan dio amodio oro gabezia eta bakardadea batzen direnean, gizakia indigentea dela."	(27)
inkisitorial 'jazarpenzkoa, mehatxuzkoa'	"Argi utzi dio berak ez duela asmo inkisitorialik . Anek ez lukeela ideia okerrik atera behar."	(131)
iraungi 'akabatu, galdu, amaitu'	"...galdetzen dio aldian behin Marianek, noizbait izan zen suaren garra nola edo hala iraunarazi nahian, iraungi ez dadin."	(68)



isiotu 'piztu'	"...nahiago lukeela alboan, azpian, gainean, edonon, metxa eta desira isiotuko lizkioken pertsona sentitzea..." (160)
izara 'maindirea, oheko oihala'	"Egonean egon, zerbait irakurri eta larrutan egin, zoro, pasioaz, tropikoaren izerdiari maitasunaren izerdia gehituz, amultsuki, izarak blai utzi arte." (74)
jakinaren gainean 'jakitun'	"Neu bakarrik nengoen jakinaren gainean ..." (25)
jaramon egin 'kasu egin, arreta jarri'	"Anek bizi duen analisiaren fase honetan, aldiz, Estebanek esan liezaiokenari ez dio jaramon handirik egiten." (34)
jelosiak jota 'zeloak hartuta'	"Lankide batek Mariani gauza polita esatea nahikoa izaten zen bera jelosiak jota egoteko." (51)
kadentzia 'mugimendu erritmikoa'	"...areago, ibilkerari ere beste kadentzia bat eman zion, arinagoa, zuzenagoa, albo-kulunkarik gabea." (64)
kargutu 'ohartu, jabetu'	"Bere zeregin berrien arduraz oraindik kargutu gabe zegoela, El Salvador-en haize-erauntsi itzela gertatu zen,..." (55)
katartiko 'katarsia eragiten duena,	"Zigarroa magikoa izan daiteke une batzuetan, totem sakratua, sinbolo falikoa, indar-biltzailea, jolaskide katartikoa ." (81)
kerra 'mingotsa, desatsegina'	"...baina zapore mingotsa lagatzen du aho-sabaian, almendra mingotsen zapore kerra ." (114)
kikara 'katilutxoa'	"...bota dio ezustean Karmelek kikara kafea hutsik laga duenean mahiaren gainean." (97)
kikilduta 'beldurtuta, meko-meko'	"Beraren baitan murgiltzen zen, eta luze egon zitekeen kikilduta sofaren ertzean." (15)
koska 'gakoa, iltzea'	"—Ez, jakina. Baina aldea, batez ere, norberaren buruan dago, nork bere buruan zer pelikula muntatzen duen, hortxe dago koska ." (91)
kulun-kalan 'kulunka, alderoka, artez ibili'	"...eta kontatu dio zelako tartearak izaten zituzten etxe berotuen kanpoaldeko espaloian, kulun-kalan , elkarri ezer esan gabe eta, hala ere, elkarriketa (37)
lagatu 'utzi, abandonatu'	"Mikelek ez luke inoiz emakume bat joko, lagako edo mespretxatuko." (58)
lagun hurko 'norberaren hurrengoa, besteak'	"Familiak eta lagun hurkoek Ane ez onartzeko presioa egiten ziotela ezkutuan, eta agian arrazoi zutela..." (15)
larrutan egin 'amodioa egin'	"Egonean egon, zerbait irakurri eta larrutan egin , zoro, pasioaz, tropikoaren izerdiari maitasunaren izerdia gehituz, amultsuki, izarak blai utzi arte." (74)
malenkonia 'sentimendu mota'	"Liburuek baino hobeto, Ane ari zaio definitzen, alaba-minez, malenkonia zer den: ausentzia baten presentzia etengabea." (113)
matraka eman 'petral edo latre portatu,	"...ez zuela behar bere alboan inor, are eta gutxiago matraka emango zion ahizparik." (154)
mehar 'mehea, argala'	"...baina biek zuten altuera eta gorpuzkera bera, meharra , eta biak ia berdin janzten ziren ia beti..." (63)
mengel 'ahula, makala'	"Desira ahula zuela, itxaroten baino ez dakien desira mengela ; eta itxarotea etsitzea dela azalduko zion azkenik." (145)
mespretxatu 'gutxietsi'	"Mikelek ez luke inoiz emakume bat joko, lagako edo mespretxatuko ." (58)
muntatu 'antolatu, asmatu'	"—Ez, jakina. Baina aldea, batez ere, norberaren buruan dago, nork bere buruan zer pelikula muntatzen duen, hortxe dago koska." (91)
muzin 'muker, hurbiltzeko gogorik	"Mikel muzin agertzen zen, egoeraz haserre." (30)
nerabe 'gaztea (adoleszentea)'	"Familia-planifikaziorako monitoreak behar zituztela, ama nerabeei laguntza emateko eta nahi gabeko haurdunaldiak ekiditeko informazioa zabaldu behar (54)
oinaze 'sufrimendua'	"Bila dabil gogoan, iragana orainera ekarri nahian, baina mingarria da aurkitu duena, eta oroipenak baztertu egin ditu, oinazea saihestearren." (80)
onbideratu 'bide onean jarri, zuzendu,	"Nik maite nuen, berak maite ninduen, ez al genuen gure onbideratzerik ?" (76)
opatu 'desiatu'	"Inori ez diot opa horrelakorik." (92)



oratu 'heldu'	"—Zer esaten zizun Mikelek Amaiaren aferaz? —hasi da Esteban, gaiari zeharka oratu nahian."	(134)
orbain 'mantxa'	"Hala ere, harreman hura bertan behera geratuko zatekeen Mikelek aurrera jo izan ez balu, txikiaren orbaina berriz ikusteko interesik adierazi ez balu."	(12)
oste 'ondo (esanahi zehatzik gabekoa)'	"—Zer istorio eta zer istorio- oste ? Hori ez da istorioa, errealitatea baizik."	(107)
osterantzean 'bestela'	"Hau da, gizon batek bene-benetan maite duenean, emakumeek bezala maitatzen duela, eta osterantzean ez duela maite."	(40)
paratu 'jarri'	"Une batez pentsati paratu da Ane, zalantzan balego bezala..."	(90)
pentsati 'pentsakor'	"Une batez pentsati paratu da Ane, zalantzan balego bezala..."	(90)
planta egin 'itxurak egin'	"...kontsultara joan eta bide batez doalako planta egitea , handik igaro izan balitz bezala, ustekabean."	(95)
pot eginda 'leher eginda, sats eginda'	"...eta egun amaigabe baten ostean, Mikel pot eginda heltzen zen etxera, fisikoki eta moralki behea jota..."	(48)
rendez-vous 'elkarrekin egoteko hitzordua'	"Berak deitzea ere ez du egoki ikusten, espektatibak sortu, rendez-vous baterako ordua jarri, ordura arte aiduru egon..."	(95)
saihestu 'itzuri, ekidin'	"Entzuten dion bitartean, Estebanek ezin du saihestu galdera bera bere buruari zuzentzea: berak zer aukeratuko ote zuen?"	(50)
sarraldi 'inkursioa, sartualdia'	"...eta gero, bestearen territoriora sarraldiak egitea, bisitan baina, norberaren koartelera bueltatzeko beti ere."	(116)
sastada 'kolpea, zaplaztekoa'	"...beste pertsonaren gorputzaren gainetik igarotzen diren huskeriak, keinuak, koloreak; baina sastadarako joera ez da zirkunstantziala, ez da aitzakia."	(44)
sentibera 'sentikorra, sentimentala'	"Roberto sentibera zen, beroa, pasioz betea. Gaztea zen oso."	(106)
seta 'egoskorkeria, kasketaldia'	"...geroztik ez zitzaion gaizki iruditu Amaiak lagun-talde harekin ibiltzeko azaltzen zuen seta ."	(151)
setati 'egoskorra, tematia'	"Marianen oroitzapena burua astinduz uxatu, mandeuli setatia uxatzen den eran."	(83)
sufrikario 'sufrimendua, oinazea'	"Mugagabeko tristeziak jotzen ninduen, hondorik gabeko tristeziak, zeren nire sufrikarioa bikoitza baitzen;..."	(57)
sumatu 'igarri, nabaritu'	"...abiatu da Esteban, gaiari heltzeko uea dela sumatuz ."	(124)
sumatu 'nabaritu, igarri, nozitu'	"Ohearen gainean etzanda, beraren kontra zapaldurik sentitzen ziren; horren handia zen aldean sumatzen zuten pisua."	(30)
sumindura 'haserrea, erretxinaldia'	" Sumindura bai, Baina berau baino handiago zela jakin-mina."	(16)
totem 'gurtzeko irudi landua'	"Zigarroa magikoa izan daiteke une batzuetan, totem sakratua, sinbolo falikoa, indar-biltzailea, jolaskide katartikoa."	(81)
txirikordatua 'korapilatua, trentzatua'	"Maitasuna txirikordatua da, uri-beltza, aurreikustezina, korapiloz betea."	(11)
txoriburu 'txolina, ardurabakoa'	"Egia da gaztetan txoriburu galanta izan zela, eta ardura guztiak uxatu egiten zituela."	(38)
uhartedi 'irla multzoa'	"Solentiname uhartedia bitxia da. Ez dauka ez elektrizitaterik ez ur korronterik."	(75)
ustekabean 'ezustean'	"Isilik baita senarra ere, ustekabean harrapatuta."	(15)
uxatu 'aldendu, urrundu'	"Egia da gaztetan txoriburu galanta izan zela, eta ardura guztiak uxatu egiten zituela."	(38)
uzkur 'mesfidatia, urruna'	"Emakume uzkurra ematen zuen, bere baitan bildua, bizitzeko gogoia galdu duten horietarikoa..."	(125)
xehetasun 'zehaztasuna, zertzelada'	"Istori horretaz konta diezaiokeen guztia jakin nahi du, xehetasun guztiak azken huskeriaraino."	(65)



zalantzaren har 'duda-muda'	"...haren oroipenak zalantzaren harra barneratuko baitu harreman berri orotan, itzal itsaskorraren gisa."	(126)
zarpail 'ganorabakoa, itxura trauskila'	"...bere burua Marianek baztertuta sentitzeagatik, berarekin bortizkeriaz jokatzegatik, guztien aurrean zoro agertzeagatik eta bere bikotekidearekin	(51)
zatekeen 'zen'	"Hala ere, harreman hura bertan behera geratuko zatekeen Mikelek aurrera jo izan ez balu, txikiaren orbaina berriz ikusteko interesik adierazi ez balu."	(12)
zigarrokin 'zigarro zatia, amaitzear dagoena'	"Begirada galdurik, giharrik mugitzeke, hankak gurutzaturik, koadro honetan zigarrokinaren keak eta jaustear dagoen errautsak bakarrik dute mugimendua."	(10)
zin 'promesa, agindua'	"Areago, izan ere, Karmele guztiak baztertzeke zina egin dio Mariani berriki."	(43)
ziotson 'esaten zion'	"Barnean gorrotorik ez zuela ziotson ."	(16)
zirt edo zart 'erabakia hartu, aukeratu'	"Une batean, ez nuen jakingo zehazten noiz, zeharo suntsiturik sentitu nintzen, batez ere branka eman behar izan genionean zirt edo zart egin beharreko	(29)